

Hitza	Esanahia
<b>adats</b>	ilea, melena
<b>adore</b>	gogoa, kemena
<b>adur</b>	lerdea
<b>ahoa bete hortz</b>	harrituta, sor eta lor
<b>aitzurra harrapatu</b>	mozkorraldi itzela
<b>aitzurtuta</b>	mozkorrik
<b>albait lasterren</b>	lehenbailehen, ahalik eta lasterre
<b>alboratu</b>	baztertu
<b>aldra</b>	andana, multzoa
<b>aldrebeskeria</b>	trauskilkeria, barrabaskeria
<b>alienatu</b>	nortasuna galdu, automata bihurtu
<b>alperkerixa</b>	alferkeria
<b>alproja</b>	tunantea, alferra, ezgauza
<b>amarru</b>	trikimailua, azpikeria
<b>amu</b>	tranpa, antzueloa
<b>apal</b>	xumea, umila
<b>apetatsu</b>	kapritxosoa
<b>apropos</b>	egokia
<b>arakatu</b>	miatu, aztertu
<b>arrapaladan</b>	presaka, korrika
<b>artega</b>	urduri
<b>astan</b>	jatan / jastan (bizk.) = zitzaidan
<b>aukera anitzeko testa</b>	a-b-c-d erako testa
<b>aurretixe</b>	baino lehenxeago
<b>azagari</b>	azeria, lukia

Hitza

Esanahia

<b>azti igarle</b>	mago asmatzailea
<b>baldarkeria</b>	trauskilkeria, ganorabakokeria
<b>bazilada</b>	zirikada, adar jotzea
<b>bedeinkatu</b>	errito erlijioso batekin goretsia
<b>begitandu</b>	iruditu
<b>begitazio</b>	irudipena, aburua
<b>behazun</b>	gibelaren isurkari mingotsa
<b>behinik behin</b>	sikeran, behintzat, bederen
<b>behintzat</b>	bederen, behinik behin
<b>belardi</b>	landa, zelaia, kanpa
<b>berba egin</b>	hitz egin, mintzatu, solastu
<b>beronek</b>	hemengo honek
<b>berretsi</b>	ziurtatu
<b>bidenabar</b>	bide batez
<b>biharamun</b>	ajea, ostea (mozkorraren ondorioa)
<b>bizipoz</b>	poztasuna, animoa
<b>biziro</b>	biziki, asko ere asko
<b>buruhauste</b>	endredua, arazoa
<b>burumakur</b>	goibel, hits, triste
<b>burutsu</b>	inteligentea
<b>buzkantza</b>	mortzila, odolostea
<b>buztantzar</b>	zakila handitua
<b>degunian</b>	dugunean (gip.)
<b>deliberatu</b>	erabaki, egitea pentsatu
<b>delitugile</b>	delinkuentea

Hitza	Esanahia
<b>deust</b>	(ematen) dit
<b>deutsat</b>	diot
<b>diru hots</b>	diruaren zaratta, erakarpena
<b>egitasmu</b>	proiektua
<b>egonezin</b>	urduritasuna, artega sentitzea
<b>eguna urratu</b>	goiztiria
<b>epiko</b>	heroikoa
<b>eragotzi</b>	oztopatu, trabak ipini
<b>erantsi</b>	gehitu, gaineratu
<b>erraiak</b>	tripak, barrukiak
<b>errapea</b>	behiaren esne tokia
<b>erratu</b>	errari ibili, noraezean
<b>errukitsu</b>	errukiorra, bihozbera
<b>eskuburdinak</b>	burdin lokarriak, esposak
<b>estudixaten</b>	ikasten
<b>ezaize</b>	ez dakit zer
<b>ezenkada</b>	ziztada, ziria
<b>fidel</b>	leiala, jarraitzailea
<b>flete</b>	aukera erraza, eskura erraza
<b>gaingabetu</b>	koipea kenduta, desnatatua
<b>galant</b>	ederra, itxura onekoa
<b>galgarri</b>	hondamenekoa, akabukoa
<b>ganorabako</b>	arduragabea, axolagabea
<b>gaña</b>	gainera
<b>gogaitu</b>	aspertu

Hitza

Esanahia

<b>goiztiar</b>	arina, garaia bainio lehenagokoa
<b>guri-guri</b>	biguna
<b>halandaze</b>	beraz, hortaz
<b>hamaika aldiz</b>	askotan, sarritan
<b>hats</b>	arnasa
<b>haxix</b>	kalamu droga
<b>hazia</b>	semena, esnea
<b>hedabide</b>	irradi-telebista, Internet
<b>higuin</b>	nazka, antojua
<b>hizki-mizki</b>	esamesa, kotilleoa
<b>hodeiertz</b>	zerumuga, ostertz-horma, horizonte
<b>hots egin</b>	telefonoz deitu
<b>hozkirri</b>	freskoa
<b>ilbetea</b>	ilargi betea
<b>iltzaturik</b>	josita, erabat lotuta
<b>iragarri</b>	aldez aurretik abisatu
<b>iseka</b>	burla, trufa
<b>itaundu</b>	galdetu
<b>izengoiti</b>	ezizena, motea
<b>jabilko</b>	(bizk.) dabilkio
<b>jatzu / jat</b>	(bizk.) zaizu / zait
<b>jenial</b>	burutsua, asmazio bikaina
<b>jeniyu</b>	adorea, kemena
<b>joian</b>	(bizk.) zihoan
<b>jorratu</b>	landu, tratatu

Hitza	Esanahia
<b>kilikagarri</b>	zirikatzailea, erakargarria
<b>kinito</b>	alkohol nahasketa
<b>kirikolatu</b>	kirrua, kiribildua
<b>kito</b>	nahikoa, akabo
<b>kitzikagarri</b>	erotikoa, sentsuala
<b>koipetsu</b>	zikina, ugerdoa
<b>konpromiso</b>	engaiamendua
<b>lakatz</b>	zakila, txurtena, txilibitua
<b>lako</b>	bezalako
<b>lantzean behingo</b>	noiz behinkako, aldizkako
<b>lantzoikeria</b>	lotsagabekeria, harrokeria
<b>larregiko</b>	demasa, gehiegizkoa
<b>larrutan egin</b>	txortan egin, amodioa egin
<b>laudorio</b>	gorespena, alabantza
<b>legetxe</b>	bezalaxe
<b>leitu</b>	izoztu / irakurri
<b>lelo</b>	errepika, esaldi egina
<b>lepagain</b>	kokota
<b>lilura</b>	erakargarritasuna, enkantua
<b>lirain</b>	politak, finak
<b>lirdingatsu</b>	likatsua, adurtia
<b>lizun</b>	sexuala, irtena
<b>lizunkiro</b>	sentsualki
<b>losintxa</b>	lausengua, balakua
<b>lur jota</b>	deprimituta, hondoratuta

Hitza

Esanahia

<b>maisu-lana</b>	lan bikaina, goi mailakoa
<b>makulu</b>	muleta
<b>malenkoniatsu</b>	tristurazkoa, oroitzapen tristekoa
<b>mamitsu</b>	sakona, esanguratsua
<b>marmario</b>	marmarra, xuxurla orokorra
<b>melatuta</b>	blai eginda, enpapatuta
<b>mesanotxe</b>	ohe ondoko mahaitxo
<b>mespretxuzko</b>	destaina, arbuioa
<b>mordo</b>	piloa, asko ere asko
<b>murmurikatu</b>	xuxurlatu, ahapeka esan
<b>muzin egin</b>	gutxietsi, baztertu
<b>nagikeria</b>	alferkeria
<b>narrua</b>	aurpegi gogorra (larrua)
<b>negar-zotinka</b>	hipaka, espasmoka
<b>neska mozolo</b>	neska mamala, kankala
<b>ñaño</b>	ñimiñoa, ezdeusa, balio bakoa
<b>ogerleko</b>	5 pezetako txanpona
<b>ohiko</b>	betikoa, normalean egiten zuena
<b>oinaze</b>	mina, sufrimendua
<b>olgeta</b>	jostela, jolasa
<b>orroa</b>	oihu lazgarria, ozena
<b>ostendurik</b>	ezkutaturik
<b>osterantzean</b>	bestela
<b>osteratxo</b>	bueltatxo, ibilalditxo
<b>otseme</b>	otso emea

Hitza

Esanahia

<b>ozpindu</b>	garraztua, umore bakoa
<b>ozta-ozta</b>	juxtu-juxtu, doi-doi
<b>patxadaz</b>	lasaitasunez, tentsio barik
<b>pikutara</b>	popatik hartzera, zakutik
<b>pitoi</b>	titiburua, pezoia
<b>plazaratu</b>	kaleratu, atera
<b>popahandi</b>	ipurtandia, ipurdi lodia
<b>popatik hartzera</b>	pikutara (atzetik hartzera)
<b>pot eginda</b>	etsita, lur jota
<b>potro</b>	barrabila, adorea
<b>potroetaraino egon</b>	kokoteraino egon, nekatuta
<b>potrojorran</b>	alferkerian, alprojarena egiten
<b>prestu</b>	ekimenekoa, lanerako ona
<b>sasi-ogibide</b>	lanbide antzekoa, ez benetakoa
<b>sikeran</b>	behintzat, bederen
<b>sine die</b>	elkartzeko egunik (finkatu) gabe
<b>so</b>	begira, adi
<b>sonadun</b>	famatua, ospe handikoa
<b>suertatu</b>	zoriz gertatu
<b>taxutu</b>	antolatu, prestatu
<b>tentuz</b>	kontu handiz
<b>tontolapiko</b>	pepeloia, ergela, leloa
<b>trauskilkeria</b>	aldrebeskeria, ganorabakokeria
<b>trikimailu</b>	engainua, amarrua
<b>txahala bota</b>	botaka egin, okadaka

Hitza	Esanahia
<b>txilibitua</b>	zakiltxoa
<b>tximaluze</b>	zapa, ile luze gaizki orraztua
<b>txortan jardun</b>	larrua jotzen aritu
<b>umeldu</b>	busti, hezetu
<b>urdanga</b>	emagaldua, prostituta
<b>usopasa</b>	usoen migrazioa
<b>zakar</b>	desatsegina, latza
<b>zapuzgarri</b>	deprimentea
<b>zatar</b>	itsusia
<b>zeharo</b>	erabat, guztiz
<b>zerritona</b>	urdanga, likitsa
<b>zilarrezko sastagaia</b>	zakila
<b>zipriztindu</b>	txipliztadak bota
<b>ziztrinkeria</b>	gauza eskasa, huskeria
<b>zurrumurru</b>	marmarra, xuxurla, ahapeka berbaz